

Liburuak

KRITIKA

Haginetako mina.
Batzuen artean.
Txalaparta. 332 orrialde. 17 euro.

Helduen literatura
Amalia Alvarez Uria

Itxoiten

Euskal gatazka euskal literaturan, *La cosa*, *Gure kontu triste hori...* Udako Euskal Unibertsitateak ikastaroa antolatu zuen Miarritzen 2005eko uztailan. 2006an plazaratu zituzten bertan landutako batzuk liburu batean *Maldetan sagarrak* izenburupean. 2008ko urriaren hondarreak agertu zen Txalapartak egindako antologia: *Haginetako mina*.

Tabu edo gai konplexu eta zail honen gainean hitz egitean irudiak etortzen zaizkigu ahora eta eztarrira korapiloa. Gauzei hitz argiak ipintzeko beldurra, ezintasuna eta duda datozkigu bata besteari jarraika. Norbaitek hitz egin dezake honi buruz minik sentitu gabe, ala?


“Eremu labaina” adierazi nahi digute aipatutako lehen liburuko izenburuarekin, “hizkuntza eta literaturarekin mina goxatu nahia” bigarrenarekin. Hamazortzi ipuin dauzkagu bertan. Azken hogei urteetan idatzitakoen artean aukeratutakoak hirurehun orriko lanean bilduta.

Baina nik hileko minarekin irakurri ditut orriok. Eta agian horregatik begiratu diet antologian agertzen diren emakumei. Kartzelan gizona daukaten emakumeak, izan neska-lagun ala ama. Hori da gehien errepikatzen den irudia. Autobusa hartu, kilometro pila bat egin eta bisitan doazenak aldiro, “pazientzia handiz eta aldarte onean”. Badaude bestelakoak ere; tabernan, kalean, gizonen inguruan agertzen diren emakume ederrak, bista eta gorputza alaitzeko modukoak eta arreba konplizeak, laguntzaileak.

Azkenean, betiko estereotipo zaharrak errepikatzen dira oraingoan ere: Penelope Ulisesen zain, borrokalariaren atsedean lekua, euskarria, negar egiten diona. Hau ere euskal gatazka dugu, emakumea gizonaren itzalpean ipintzen duena. Besteen aukeren ondorioak isilik jasan behar dituenak –begiratu bestela liburuaren azalean agertzen den amaren irudikapena, ikurrinaren ondoan, basoan jarrita, gona beltza jantzita, negar batean dagoen emakume zaharra–.

Esan dezagun, hala ere, badirela aldaketa txikiak azken urteotan. Antologiaren hasieran giro eta pertsonaia maskulinoak nagusitzen diren arren, apurka-apurka emakumeak agertzen doaz, protagonista bihurtu arte zenbait ipuinetan. Giro femeninoa ere areagotzen da azken narrazioetan, errealtateari begiratzeko modu desberdin eta aberatsagoak eskainiz mende aldatetarekin batera. Andrazkoen presentzia eta parte-hartzea areagotzen dira denborak aurrera egin ahala, espazioak eta esperientziak ugartzen. Hurbilpen berriak egiten.


Familia askotan agertzen da, senidetasan harremanak. Ondo legoke hurrengo irakurraldi batean ama-alaba arteko erreparatzea, adibidez. Eta zain dagoen figuraren atzeko diskurtsoaren hariak elkarrekin lotzea, edo askatzea. Bizitza josten eta desjosten pasatzen duen irudia berrikustea. Bitartean, aldaketak itxoiten geratuko gara. ■



Koloreen historia euskaratu du Gaiak-ek

XVI. mendetik abiatuta murgildu nahi izan zuen Manlio Brusantinek koloreen historian. Fisikaren lorpenak baliatu zituen horretarako, baita pinturak mendetan koloreekin osatu dituen teoriak ere. Besteak beste Newton eta Klee uzartuz, Brusantinek ezinbesteko liburua sortu zuen. Ezinbestekoa, koloreen unibertsoa ezagutu nahi duen

edonorentzako. Denetik aurkituko du gaien interesa duen irakurleak: nola fabrikatzen diren koloreak, garapen industrialari iritsi bitartean izan duten historia, tindu naturaletatik kimikoetarako bidea... Brusantín Veneziako Unibertsitateko irakaslea da, arkitektoa, eta –nola ez– pintorea. Andoni Sarriegi itzuli du liburua, Gaiakentzat. ■



Koloreen historia.
Manlio Brusantin.
Gaiak.
182 orrialde.
18 euro.

Tasmaniako tigre bakarra, ihesean

Desagertu egin zen, orain dela mende bat, Tasmaniako tigrea. Bai? Bada, beharbada, ez. Gauzak zer diren, ale bat bizirik geratzen da. Bitxia gero. Hain bitxia, epaile ingeles batek hiltzera kondenatuko duela Tasmaniako tigre bakar hori. Izan ere, agiri ofizialek diote ez dela halakorik geratzen munduan. Eta agiriak betetzeko daude: “zer litzateke mundua gure burokrazia eta jakinduria gabe” dio epaileak. Bere patu beltza ikusita hanka jokia egingo du animaliak, eta mundu osoa ezagutuko du ihesean dabilela, baita mundu osoko animaliak ere. Roberto Landa *Mundinaren Animalien inauteria* komikiak

kontakten duen istorioa duzu hori. Saure argitaletxeak publikatu du. ■



Animalien inauteria.
Roberto Landa.
Saure.
48 orrialde.
17,10 euro.